

Erantzuna

1. Enpresari persona indibidualak bere ondare osoarekin erantzuten du bere jardueran sortzen diren zorretaz (Kode zibila 1911. Artikuloa). Ezkontuta badago bere ezkontzaren eraentza ekonomikoa zein den garrantzitsua da horren arabera ezkontidearekin konpartitzen dituen ondasunekin ere erantzuteko obligazioa izango duelako.

Enpresaria ezkontzen denen kapitulazioak egiteko aukera dauka, bertan ezkontzaren eraentza ekonomikoki hori antolatzeke (kode zibila 1315. Art.). Ez bada horrela egiten ezkontzari irabazpidezko eraentza aplikatuko zaio, izaera ordeztalea duen eraentza baita (k.z.1316 art.).

Azken kasu honetan merkataritzako kodeak dio enpresariak bere ondare pribatuarekin eta merkatarizatik eratorritako ondasunekin erantzungo duela. Ezkontidearen ondasunak erabiliko dira enpresariaren zorrak ordaintzako bakarrik ezkontidearen adostasun espresuarekin (merkataritzako kodea 9 art.). Kasu honetan Jasonek eman dio adostasun hori Kutxari, beraz bai galdu ditzakeela bere ondasunak senarrak ezin badu mailegua itzuli.

Jose Ramón ez badago merkataritzako erregistroan inskribatua ezingo du bertan ezer inskribatu eta beraz beste hartzekodun guztien aurrean ez da egon adostasunik eta ez da egongo erantzukizunik.

2. Jasoneren soldata enbargatu dezakete ondare erkidea baita (kode zibila 1347 art.) eta ondare erkideekin erantzuten da ezkontideak ez badu bere desadostasuna erregistroan inskribatzen (merkataritzako kodea 7 eta 8 art.). Jose Ramón ez bada inskribatzen ezingo da desadostasun hori inskribatu eta ez du indarrik izango hirugarrenen aurrean (M. K. 21 art.).
3. Jasoneren ondare pribatiboa legez erantzukizunetik salbu geratzen da (M.K. 9 art.), ez da ezer egin behar. Aldiz soldata salbu uzteko Jose Ramon bera inskribatu beharko litzake erregistroan eta ondoren Jasonek inskribatu beharko luke bere desadostasuna (M.K. 10 art.). Beste aukera bat litzake ezkontzaren eraentza ekonomikoki aldatzea eta, adibidez, banantze eraentza aukeratzea.
4. Jasoneren enpresa inskribatua dago, horrek aukera ematen dio, besteak beste, bere gerenteen ahalordeak inskribatzeko (Merkataritzako Erregistroaren Erreglamentuaren 87 art.). Eta Merkataritzako Kodearen 283. Artikulok onartzen duenez ahalordearen mugatzea, hau inskribatu ondoren aurkajararia izango da hirugarrenen aurrean (M.K. 21. Art.)
5. Bidai gastuak ordaindu beharko ditu negozioarekin zerikusirik balu bidai horrek (M. K. 278. Art., edo 284. Art.)

6. Ez du ordindu behar makinaren prezioa ez bait zaio aurretiazko baimena eskatu. Muga Erregistroan inskribatua dagoenez aurkajargarria da (M.K. 21 . art.) saltzailearen aurrean. Gerentea “falsus procurator” bat denez berak egindako kontratua deuseza da.
7. Bai. Alde batetik merkataritzako kodearen 288. Artikuloan jasotzen da lehia egiteko debekua eta debekua urratzeagatik dagoen ondorio juridikoa. Bestalde Lehia desleialaren legean portaera desleial bezala ulertzen da norbait kontratuak urratzera bultzatzea (14. Art.)